

**XEDAPENA, ABENDUAREN 12KOA, OSATEK-EKO ZUZENDARI GERENTEARENA, 2023KO EKAINAREN 23KO XEDAPENERA JOTZEN DUENA. XEDAPEN HARTAN, IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTU ZEN, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREN ARABERA, ERRADIOLOGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTA KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO. HORI GUZTIA AMATASUN/AITATASUNAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO EZINTASUN-EGOERAK MEREZIMENDU GISA ALEGATZEKO EMANDAKO EZOHIKO EPEAREN ONDOREN.**

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13ko xedapen baten bidez, lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea onartu zen, eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14ko xedapen baten bidez, onartu egin ziren merezimendu-lehiaketa bidez erradiologiako mediku espezialista kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko maiatzaren 26ko xedapen baten bidez, hautaketa-prozesuko izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen, merezimenduen puntuazioaren arabera, lan-kontratudun langile finko izateko, erradiologiako mediku espezialista kategorian.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, behin-behineko zerrendaren ondoren, zuzendari kudeatzaileak izangaien behin betiko zerrenda onartu zuen, merezimenduen puntuazioaren arabera, 2023ko ekainaren 23ko xedapen bidez.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko azaroaren 2ko xedapen baten bidez, aldatu egin zen OSATEKen aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzeko aparteko deialdi baten bidez lan-kontratu finkoko langile izateko prozesuaren oinarri arautzailea baloratzeko irizpidea. Aldaketa hori amatasunagatiko/aitatasunagatiko aldi baterako ezintasun-egoeretatik datorren lanbide-esperientziari aplikatuko zaio, baldin eta dagokion Gizarte Segurantzaren Probintzia Zuzendaritzaren prestaziorako eskubidea epai edo ebazpen bidez aitortuta badago.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2023ko azaroaren 10eko xedapen baten bidez, erabaki zen hamar eguneko ezohiko epea ematea onartutako izangai guztiei, amatasun/aitatasunagatiko aldi baterako ezintasun-egoerak alegatu eta egiaztatzeko, lanbide-esperientziaren atalean meritu gisa zenbatu ahal izateko. Egoera horiek dagokion Gizarte Segurantzaren Probintzia Zuzendaritzak aitortutako epai bidez eta/edo prestaziorako eskubidea ebatziz aitortuko dira.

Aipatutako ezohiko epea amaituta, idazki honen goiburuan identifikatutako deialdian onartutako izangai batek ere ez du horri buruzko alegaziorik aurkeztu.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko abenduaren 12ko xedapen baten bidez, OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko azaroaren 2ko Xedapena zuzentzea erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. eta 109. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta arau-hausterik egin ez balitz berdin mantenduko liratekeen egintza eta izapide guztiak mantentzea.

Horregatik guztiagatik, eta sozietatea eratzeke estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, hau

  
Data/fecha: 2023 SEP. 12  
Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones  
ZK / Nº: 13.1 / 2023

## XEDATU DUT

**Lehenengoa:** Hautagaien puntuazioaren arabera behin betiko onarpena igortzea, 2023ko ekainaren 23ko Xedapenean jasotakoa, indarrean jarraitzen duena bere osotasunean, ez baita alegaziorik egin horretarako emandako ezohiko epean.

**Bigarrena:** Xedapen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio OSATEKen Administrazio Kontseiluari, idatziz, honako posta-helbide honetan: Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, 48011 Bilbao, hilabeteko epean, webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2023ko abenduaren 12an  
Zuzendaria/ Gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz